

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2021

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergaren Foru Arau berezian ezarritakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta eskatzen du ordenantza honen arabera.
2. artikulua.- Ordenantza udal mugarte osoan ezartzen da.

II. ZERGA EGITATEA.

3. artikulua.- Zerga honen zerga-egitate da, Getxo udalerraren barruan, edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra- edo hirigintza-lizentzia eskatzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko deklarazioa edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia hori ematea Udalari badagokio.

4. artikulua.- Zergari loturiko zerga egitateak hurrengoak dira:

1.- Oin plano berriko mota guztietako eraikuntzak edo instalazioak eraikitzeo obrak.

2.- Mota guztietako eraikinak edo instalazioak zabaltzeko obrak.

3.- Aldatzeko edo zaharberritzeko obrak, baldin eta mota guztietako eraikinen edo instalazioen egiturari eragiten badiote.

4.- Mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpo itxura aldarazten dutenak.

5.- Eraikinen barne antolamendua aldarazten duten obrak, barne antolamendu horren erabilera edozein izanda ere.

6.- Lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/98 Legeko 17. artikulua aipatzen dituen behin-behineko obrak.

7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8.- Lur mugimenduak, adibidez, lurrerauzketak, indusketak eta betelanak, salbu eta egintza horiek onetsi edo baimendu den hirigintza edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa xeheaturik eta antolaturik badaude.

9.- Eraikuntzen errauspena, salbu eta hurre-hurreko aurri deklaratu izan direnena.

10.- Aparkalekurako diren zorupeko instalazioak, industri, merkataritza edo lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo zorupearen beste edozein helburu.

11.- Bide publikotik ikusten diren propaganda kartelak jatzea.

12.- Edozein obra, eraikuntza edo instalazio, baldin eta horiek ahalbide ekonomikoa erakusten duten ekonomi baliabideen inbertsioa sortzen badute eta obretarako edo hirigintzako lizentziari loturik badaude.

13.- Etxebizitza barruan obra txikiak egitea barruko egitamuari erasan gabe bada ere.

14.- Eta, oro har, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. Artikuluan jasotako kasu guztietan.

5. artikulua.- 1-Hurrengoak ez dira zerga honi loturik egongo: higiezin gainean burutzen diren eraikuntzak, obrak edo instalazioak, baldin eta higiezin horien jabari titulartasuna udal honi badagokio eta obraren jabea bada.

2.- Partikularren mindazuloak kentzeko eskatzen diren baimenak ez dira zerga honen menpean egongo.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.- 1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren Foru Arau Nagusiak aipatzen dituen pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak, baldin eta eraikuntzen, instalazioen edo obren jabeak badira, horiek gauzatzen diren higiezin jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat hartuko dira horiek gauzatzearen kostua edo gastuak beregain hartzen dituztenak.

2.-Eraikuntza, instalazioa edo obra ez badu subjektu pasibo zergadunak egiten, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat joko dira dagozkien lizentziak eskatzen edo erantzukizuneko deklarazioak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkariek eska diezaioke zergapekoari ordaindutako zerga-kuota horren zenbatekoa.

3.- Kasu orotan, Udal Administrazioak zergapekoaren ordezkariari eskatu ahal izango dio zergapeko izaera duen pertsonaren identifikazioa nahiz helbidea.

IV. ZERGA EGITATEA

7. artikulua.- 1.- Zerga honen zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetakoa da. Kostu horregatik obraren exekuzio materialarena aditu behar da.

Ez dute zerga-oinarria osatzen balio erantsiaren gaineko zergak eta berez erregimen berezietakoak diren antzeko zergek, tasak, prezio publikoek eta tokiko izaera publikoko gainerako ondare-prestazioek, kasuan kasu, eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin lotuta daudenak; eta ezta soldata profesionalak, kontratistaren etekin enpresarialak, edo hertsiki exekuzio materialaren kostua osatzen duen beste edozein kontzepturik ere.

2.- Udal lizentziarik gabe eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiten badira, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko deklarazioa, kasuaren arabera, legeztapen espedientea galdatuko zaio jabeari eta horrexek erakutsitako obraren egikaritzapenaren kostuari ezarriko zaio zerga oinarria. Legeztapen espedientea aurkezten ez bada Administrazioak ezarriko du Zerga Oinarria.

V. ZERGA KUOTA ETA ZERGA TASA

8.1. Artikulua.- Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga egitateari karga tasa ezarriko zaio.

2.- Karga tasa %5ean finkatuko da.

VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

9.1. artikulua.-SALBUESPENAK:

a) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra, baldin eta horien jabea Estatua, autonomia erkidegoak edo toki erakundeak badira eta errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, biztanleguneen eta horien hondakin uren saneamendua egiteko badira, nahiz eta horien kudeaketa erakunde autonomoen ardurapean egon eta inbertsio berriko edo artapenerako obrak izan.

b) Honako hauek eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergatik salbuetsiko dira: Egoitza Santua; Gotzain Konferentzia; elizbarrutiak; parrokiak eta lurraldeko beste muga-barru batzuk; erlijio-ordena nahiz -kongregazioak, biziera sagaratuko institutuak, beren probintziak nahiz etxeak". Salbuespen hori beren titulartasuneko higiezinetan egindako obretarako izango da, Estatuaren eta Egoitza Santuaren artean 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Gai

Ekonomikoei buruzko Akordioan aurreikusitako terminoetan. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko irakaskuntza pribatura bideratutako higiezinetan egindako eraikuntza, instalazio eta obrei.

2.- HOBARIAK

a).- %95era arteko hobaria gizarte-inguruabar edo inguruabar historiko-artistiko bereziak direla eta edo enplegua edo txandakatzeko alojamendu iraunkorra sustatu beharra dela eta interes berezikotzat edo udalerrien onurarakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.

Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio adierazpen hori egitea eta, gainera, inguruabar konkurrizaileen arabera aplikatu beharreko hobariaren portzentajea finkatuko du.

Interes berezikotzat edo udal erabilerarako egokitzen aitortu dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak udal titulartasuneko ikastetxeetan egiten dituen obrak. Ondorio horietarako, zergaren kuotan %95eko hobaria ezartzen da Eusko Jaurlaritzak udal titulartasuneko ikastetxeetan sustatutako eraikuntza, instalazio eta obretarako.

b).- Zergaren kuotaren gain %90eko hobaria izango dute higiezin bizi diren pertsona desgaituen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak ahalbidetzen dituzten eraikuntzek, instalazioek edo obrek, baldin eta ez badira derrigorrezko gisa jasotzen gai horri buruzko araudi espezifikoan. Etxebizitza barruko obren kasuan, hobari horrez gozatu ahal izango dute soilik desgaitasuna duen pertsonaren ohiko bizilekua egokitzeko beharrezkoak diren horiek, irisgarritasuna hobetzera eta pertsona horren beharrezkoak diren obrak egokitzera bideratuta daudenek.

Hobari hori irisgarritasuna hobetzeko obrei lotutako aurrekontuko partidei soilik aplikatuko zaie.

Hizki honetan xedatutakoaren ondoretarako, honako hauek joko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a') % 33-65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak; halakotzat joko dira desgaitasun-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretakoa batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b) % 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua duten pertsonak.

Hobari hau aplikatu ahal izateko, desgaitasun maila egiaztatu beharko da, agintaritza eskudunak emandako dokumentuaren bidez.

c).- Zergaren kuotaren gain %90eko hobaria izango dute eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezartzeko eraikuntza, instalazio edo obretarako. Kasu horietan, sistema horiek ezartzearen aurrekontuan aplikatuko da bakarrik hobaria, berariaz bereizita. Hobari hori aplikatuko da baldin eta beroa ekoizten duten instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak badituzte, eta ez da aplikatuko aprobetxamendu termikoaren edo elektrikoaren sistemak ezartzea beharrezkoa denean gaiari buruzko berariazko araudiaren arabera.

d).- Zergaren kuotaren gain %50eko hobaria izango dute babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzak, instalazioak edo obrak, etxebizitza tasatuak eta zuzkidura bizitokiak, sustapen publikoak nahiz pribatukoak. Hobari hori %95ekoa izango da erregimen bereziko eta alokairuko babes sozialeko etxebizitzaren kasuan.

Obra batek bi hobari edo gehiago izateko aukera badu, horietatik hobaririk altuena besterik ez da aplikatuko.

Hobariak aplikatu ahal izango dira aurkezten diren autolikidazioetan edo konturako behin-behineko likidazioetan, hala badagokio, baldin eta horiek aitortzeko eskaera praktikatzeko epearen barruan aurkezten bada eta une horretan egiaztatzen badira hobari horiek bidezkotzat jotzeko inguruabarrak eta baldintzak. Bestela, eskaera aurkeztu beharko da eta inguruabar eta baldintza horiek egiaztatu beharko dira obra amaitu baino lehen. Dagokion likidazio osagarrian edo behin betikoan aplikatu beharko da.

VII. SORTZAPENA

10. artikulua.1- Zerga sortuko da eraikuntza, instalazio edo obra hasten den unean, lizentzia egokia lortu ez bada ere.

2.-Zerga hori oinarri hartuta, eta kontrakoa egiaztatzen ez bada, lizentziaren baimena eman ondoren, hasitzat emango dira eraikuntza, instalazio eta obrak.

VIII. KUDEAKETA

11. artikulua.- 1.- Nahitaezko lizentzia eman edo erantzukizunezko deklarazioa zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada edo, nahitaezko lizentzia hori oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik, eraikuntza, instalazioa edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio edo auto-likidazio bat egingo da, eta zerga egitatea interesatuek aurkezten duten aurrekontuaren arabera

zehaztuko da, baldin eta aurrekontu hori elkargo ofizial egokiak ikusonetsi badu, derrigorrezko baldintza denean; bestela, zerga egitatea udal teknikoek zehaztuko dute proiektuari zenbatetsi zaion kostuaren arabera.

12. Artikulua.- 1.- Aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunezko deklarazioa eskatzen duten eraikuntza, instalazio eta obrak auto-likidazioko sistema bidez kudeatuko dira; auto-likidazio hori subjektu pasiboak gauzatuko du komunikazio edo deklarazio hori aurkezterako unean, Udal Administrazioak emango dion eredu ofizialaren arabera. Ondoriozko kuotaren ordainketa auto-likidazioetarako adierazitako epean eta moduan egingo da.

2.- Gainerako kasuetan, behin-behineko likidazioa egingo da, lizentzia eskatzerako unean aurkeztu behar den zergaren deklarazioan oinarrituta.

13. artikulua.- Lizentzia egokia eman ondoren, hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko beste likidazio bat egiteko, hasierako aurrekontutik berrira dagoen diferentziaren arabera aldatu den aurrekontuaren eredura.

Behin obra bat komunikatu ondoren, beranduago aurrekontu handiagoa komunikatzen bada, aurrekontuaren gaindiko kopuruaren gaineko dagokion auto-likidazioa sortuko da.

14.- Artikulua.- Behin eraikuntza, instalazio edota obra amaituta, eta hurrengo hilabetearen barruan, udal administrazioak (web orrialdean) emandako inprimakiarekin, egoera horren aitortpena aurkeztu behar da. Inprimaki horrekin batera, obrako zuzendari teknikariaren ziurtagiria ere aurkeztu behar da, beti ere, dagokion profesionalen elkargoak ikusonetsia, derrigorrezko baldintza denean. Elkargo horrek aurrez aipatutako eraikuntza, instalazio edota obraren kostu osoa frogatuko du edo, hala badagokio, kostuak egiaztatzen dituzten faturena. Kontuan izanda eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala eta benetakoa, udalak, dagokion egiaztapen administratiboaren bidez, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko artikuluetan aipatutako zerga-oinarria. Horretarako, dagokion likidazioa praktikatu du kudeaketa bidean edo ikuskapen bidean, eta subjektu pasiboar exijitu edo itzuliko dio dagokion zenbatekoa.

15. artikulua.- Zergaren likidazioaren ondoreetarako, administrazio isultasuna ezartzeagatik ematen diren lizentziek beren beregi ematen diren lizentzien eragin berdina izango dute.

16. artikulua.- Obrak egikarrituko ez balira lizentziaren eskatzaileak edo aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu zuenak uko egiteagatik, atzera botatze edo uko egite hori berariaz jakinarazi beharko zaio udalari. Une horretatik aurrera, zerga-egitatea egin gabekotzat joko da.

17. artikulua.- Lizentzia iraungitzeagatik obrak gauzatuko ez balira, iraungipen hori udalak berariaz adierazi behar du. Une horretatik aurrera, zerga-egitatea egin gabekotzat joko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Udalaren plenoak 1989ko irailaren 29an onetsi zituen eta plenoaren erabakiz 1990ko azaroaren 30ean, 1992ko azaroaren 27an eta 1996ko apirilaren 29an eta 1997ko urtarrilaren 31n, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006 abenduaren 22an, 2011ko abenduaren 27an, 2012 abenduaren 27an, 2014ko apirilaren 29an, 2021eko maiatzaren 27an, aldarazi zen eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta BAOan argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.